

## Euskara Elkarteen Topagunea

**H**ego Euskal Herriko 29 euskara elkartek *Euskara Elkarte*en Topagunea eratu dute. Tolosako Galtzaundi elkarteak 94ko azaroan euskara elkartearen arteko harremanbideak garatzen hasteko egin zuen proposamena izan da eraketa honen abiapuntua.

### Orain arte emandako pausoak

1995eko urtarrilean, Galtzaundiren proposamena eztabaidatzeko 19 euskara

elkarte bildu eta *Topagunea* eratzeko talde eragilea osatzea onartu zen. Urte bereko maiatzean, Zarautzen, 17 elkarte bildu ziren talde eragileak egindako lanari buruz elkarteek zuten iritzia eztabaidatu eta erabakiak hartzeko. Azaroan, Bergaran bildu ziren 23 elkartek *Euskara Elkarte*en Topagunearen oinarriak eta eraketa prozesua onartu zuten.

Aurtengo lehen bost hilabeteetan, Bergaran onetsiriko oinarriak erreferentzia izanik, Eraketa Biltzarrerako aurrelanak prestatzen jardun du talde eragileak.

Ekainaren hamabostean egin zen Durangon *Euskara Elkarte*en Topagunearen Eraketa Biltzarra. Biltzar honetan estatutuak eta zuzendaritza batzordea onartu ziren. Batzorde hau bederatzi kidez osatua dago; egoitza Durangon izango du eta 6.500 bazkide inguru dituzte. Elkarteetan sumatzen ziren beharrei erantzuteko sortu da *Topagunea*; partaideek premiazko-tzat jotzen dute elkarteak indartzea eta beren baliabideak eta ahalmenak optimizatzea, esperientziak trukatzeko edota ekintza eta



✕ *Ekainean Durangon egin zen Euskara Elkarte*en Topagunearen Eraketa Biltzarra.

### SUMARIOA

- 1 Euskara Elkarte
- Topagunea
- 2 Laburrak
- Xabier Etxaniz
- Kontuan hartzeko
- 3 Euskarazko Biblia CD
- formatuan
- Deialdia
- II. Soziolinguistikazko
- inkestak
- 4 Izen-abizenez
- Lehen begiratuan
- Arantzazuko Andre
- Mariaren Egutegia

jarduera bateratuak bideratzeko.

Egitasmo honetako jarduera batzuk barnera begira eginak (elkartearen arteko harremanak bideratzeko) izango dira eta beste batzuk kanpora begirakoak. Hauen artean azaroan izango diren elkarteeri buruzko jardunaldiak eta abenduko Biltzar Orokorra daude.

*Topagunearen* zeregin nagusietako bat euskara elkartearen norabidea euskararen zerbitzura ahalik eta modurik egokienean egon dadin ziurtatzea da. Hori horrela, elkartearen egoeraren diagnostia egiteari helduko dio lehendabizi.

## LABURRAK

**A** RGIak aurten diskete bakar batean kaleratu du Euskal Kulturaren Agenda. Euskal kultura osatzen eta egiten duten 6.000 profesional, enpresa, elkarte eta erakunderen helbide eta telefonoak biltzen dituen datu-basea da. MS-DOS sisteman instalatzeko prestaturia dago eta teklatu arruntarekin nahiz saguarekin erabiltzeko aukera ematen du. Leihoak irekiaz funtzionatzen du, erabat bisuala eta oso erabilerraza da, beraz. Euskal Kulturaren Agenda digitalizatuak euskaraz, gaztelaraz, frantsesez eta ingelesez eskaintzen ditu informazioa eta baliabideak.



**S** ortu berria da Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkartea (EATAE). 1995eko Debako Antzerki Astea zela eta, Goaz taldeak elkarte sortzeko egindako deialdiari erantzunez, une hartan euskara hutsean antzerkia egiten ari ziren talde amateurrak elkarte eratzearen alde agertu ziren. Elkarte honetako partaide izateko baldintza bakarra antzerkia euskara hutsean egitea eta amateur izatea da. Beste talde batzuekin harremanetan badira ere, oraingoz honako hauek dira elkarteko partaide: Azpeitiko Antxieta, Lekuineko Bordazuri eta Xirristi-Mirristi, Debako Goaz, Etxebarriko Antzerki Taldea, Mutrikuko Goizeko Izarra eta Elgoibarko Ekekei. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMArekin) harremanetan dira beren asmoak aurrera eramanez ahal izateko. Mankomunitatea osatzen duten herrietan urtean bi emanaldi izatea eta euskal udalerri bakoitzean antzerki talde bat izatea dute helburu.

## Xabier Etxaniz

**X** abier Etxaniz Erle Oñatin jaioa da 1961ean. Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen eta geroztik hiri horretako Irakasle Eskolan dihardu eskolak ematen. 1982an *Gasteiz hiria* literatur lehiaketa irabazi zuen. Orain arte haurrentzako hainbat liburu idatzi ditu; besteak beste, *Nire belarriak*, *Patxiki*, *Igarkizunak*, *Ilun*, *Berdez jantzitako neska* eta *Haur Folklorearen Bilduma*. Aurten notizia dugu idazle hau *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* doktorego tesia aurkeztu duelako. Jean Haritzelar buru zuen epaimahaiak *cum laude* kalifikazioa eman zion bere lan mardulari. Iñaki Gaminde, Itziar Idiazabal, Jon Kortazar eta Itziar Turrez izan ziren gainerako epaimahaikideak. Juan Kruz Igerabide idazlea izan du lanaren zuzendari. Hainbat arrazoi badira Xabier Etxaniz tesi hau egitean bide urratzaile gisa hartzeko.



Batetik, EHUKo Gasteizko campuseko Irakasle Eskolan irakurri den lehen tesia izan delako eta, bestetik, euskarazko haur eta gazte literaturari buruzko lehen tesia ere badelako. Tesiak bi atal ditu: lehenean, nahikoa teorikoa bera, egilea haur eta gazte literatura zer den definitzen saiatzen da eta bigarrean, euskal liburugintzaren historia izan diren haurrentzako liburuak aztertzen ditu. Egilearen ustez, gure artean eta baita mundu osoan ere oso ikerlan gutxi dago haur literaturaz. Ezjakintasun handia dago gaiaren inguruan eta oraindik bada haur

literatura *Xabi*txorekin erlazioan duenik ere. Irizpideak finkatzen eta kalitatea hobetzen lagunduko duen kritikaren faltan omen gaude; bestalde, Etxanizek garrantzizkotzat jotzen du gurasoen eta irakasleen ardura eta arreta umeei eskaintzen zaizkien liburuak aukeratzeko orduan. Nolanahi ere, azken urteotan haur literatura izan da bilakabiderik handiena izan duen arloa, ezer gutxi izatekin hainbat lan kanporatzerata pasatu garelako. Urtero euskarazko hirurehun bat liburu argitaratzen dira haurrentzat.

## KONTUAN HARTZEKO

## XI. Literatur lehiaketa egile berrientzat

Iruñeko Udalak euskarazko literatur produktzioa eta egileak bultzatzea helburu duen Literatur Lehiaketa antolatu du aurten ere egile berrientzat. Olerkia, Narrazio Laburra, Bertso-papera eta Komikia izango dira lehiaketa honetako sailak. Bertan parte hartzeko ezinbestekoa da helbidea Nafarroan izatea. Lanak Iruñeko Udalaren Erregistro Ofizialean aurkeztu behar dira, urriaren 31 baino lehen.

## Kilometroak

Aurten, *Kilometroak* ekitaldia Elgoibarren egingo da urriaren 6an. Bertako San Bartolome Ikastolak antolatuko du eta "*Banoa, banixe, euskaraz bai horixe*" hartu dute lematzat. Ikasturte hasierarekin bat eginez, egun horretan Elgoibar jende askoren bilgune izatea espero dute antolatzaileek.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

**Irailaren 9tik irailaren 22ra Sopelan**  
**Irailaren 23tik urriaren 6ra Elorrión**

## Euskarazko Biblia CD formatuan

**K**atoliko eta protestanteen arteko elkarlanak dagoeneko eman ditu bere fruituak eta fedea nahiz kultura hornitzeko tresna bikainak ditugu kalean:

Belarritik bihotzera.  
Bibliako pasarte aukeratuak

Itun Zaharreko eta Itun Berriko pasarte narratiboak eta jakinduriarazkoak jasotzen dituen materiala dugu honako hau. CDan eta kasetetan eskura dezakegu. Aukera egokia, zalantzarik gabe, garai batean aitona-amonen ahotik entzuten ziren Bibliako pasadizoak teknika moderno bidez dastatzeko. Euskaltegietan ere mesedegarri gerta daitezke pasarte gehienak entzumen lantzeko.

Elizen arteko Biblia

Protestante eta katolikoaren artean itzultitako Biblia dugu hau, esan bezala. Lehen

aldiz, Biblia osoa euskara batuan dago. Bibliako testuez gain, testua ulergarri egiteko lagungarriak ditu: Bibliako 76 liburuetakako bakoitzari bere sarrera egin zaio, oinoharrak eta erreferentziak jarri dira, bibli hiztegi oparoa, mapak, etab.

Itun Berria. Grekoa-Latina-Euskara

Liburu hirueledun hau interesgarri izango zaio, bai iturrietara jo nahi duen biblistari (grekozko testu kritikoaz gain, hornidura kritiko aberatsa aurkituko baitu), bai filologoari, bai grekorako nahiz latinerako hurbilketa egin nahi duenari. Apaiztegiaren ezezik, unibertsitateko fakultateetan eta institutuak hizkuntza arloetan ere erabiltzeko moduko lana dugu.

Bibli Elkarte Batuak eta Pax argitaletxea arduratu dira *Belarritik bihotzera* eta Itun Berria argitaratzeaz; Elizen arteko Biblia, berriz, Bibli Elkarte Batuak eta Euskal Elizbarrutiek argitaratu dute.

## DEIALDIA

Espainiako Kultura Ministerioaren dirulaguntzak

Espainiako Kultura Ministerioak Estatuko hizkuntza ofizialen artean lanak itzuli eta horiek argitaratzeko 1996an banatutako dirulaguntzak ezagutu dira dagoeneko. Guztira 24 lan izan dira diruz lagundu dituztenak. Horien artean euskarara itzultitako honakook:

- Katalanetik:
  - Anna i el detectiu.*  
Itz. Edorta Agirre. D. DE BROUWER
  - ¡Que passa dins del cucut!*  
Itz. Lurdes Auzmendi. D. DE BROUWER
  - Prohibit de ploure els dissabtes.*  
Itz. Lurdes Auzmendi. D. DE BROUWER
  - La meva familia i l'angel.*  
Itz. Antxiñe Mendizabal. ELKAR
  - Les clauds de vidre.*  
Itz. Joxe Austin Arrieta Ugartetxea. ELKAR
- Gaztelanetik:
  - El cazador urbano.*  
Itz. Pello Esnal Ormaetxea. BRUÑO
  - Los Ayunos de la reina Ester.*  
Itz. Antxiñe Mendizabal. D. DE BROUWER
- Galizieratik:
  - Cartas de Invierno.*  
Itz. Koldo Izagirre. ELKAR


## II. Soziolinguistikazko inkesta Probintzia bakoitzean egin den elkarrizketa kopurua

**1**991n Euskal Herriko I. Soziolinguistikazko Inkesta egin zen; aurren, II. Inkesta da gauzatzekoa, eta jadanik amaituta dago landa lana. Hain zuzen ere 6.359 elkarrizketa egin dira guztira (ikus mapa). Galdesorta prestatzerakoan Richard Bourhis aditu quebecarra izan da aholkulari eta, bestek beste, aldagai soziolinguistikoa (adina, sexua, jatorria, etab.), gune soziolinguistikoa, kultur nortasuna, hizkuntza gaitasuna, eremuz eremuko


euskararen erabilera, eta herritarren euskararekiko interesa eta jarrerak nahiz hizkuntza politikari buruzko iritziak aztertuko dira inkestan. Aurreko inkestan egin zen bezalaxe, azterlan hau aurrera ateratzeko, elkarlanean dihardute Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak, Nafarroako Gobernuo Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak. Bestalde, proiektuaren interesa eta kalitatea aztertu ondoren, Euskal

Herri osoari buruzko inkesta diruz laguntzea erabaki du Europako Batzordeak. Lan honen lehen emaitzak urriaren erdialdean

ezagutaraziko dira Hego nahiz Ipar Euskal Herrian.



## Iñaki Aldekoa *cum laude* goraipamena Gabriel Arestiren lanagatik



Iñaki Aldekoa idazle eta irakasle oñatiarrak Gabriel Arestiri buruzko doktorego tesia aurkeztu zuen uztailaren 27an Gasteizko Filosofia eta Letretako Fakultatean. Jon Juaristi arduratu da tesia zuzentzeaz eta Ibon Sarasolak, Joseba Lakarrek, Jesus Mari Lasagabasterrek eta Jon Kortazarrek osatutako epaimahaiari aurkeztu zion bere lana. Epaimahaiak hala erabakita, *cum laude*

goraipamena lortu du idazle oñatiarrak. *Iharduna eta zentzuna Gabriel Arestiren poesiagintzan* izeneko lanak hiru atal nagusi ditu; lehena *Maldan behera* poemaren azterketa da, bigarrena Arestiren poesia sozialari loturikoa eta hirugarrena aurreko bi atalen ondorioek osatua da. Gabriel Arestiren poesiagintza Aldekoaren gai kutuna dela esan daiteke, aspalditik ari baita olerkari handiaren lana aztertzen.

## Antonio Zavala

Sendoa argitaletxeak kaleratu berri duen *Auspoaren auspoa* izeneko idazlan bilduma aurkeztu zuen Antonio Zavalak ekainaren amaieran Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bernardo Atxaga eta Sendoa argitaletxeak arduradun den Joakin Berasategi izan zituen lagun aurkezpenean, besteak beste. Bertsolari ezagun ugari ere bildu zen ekitaldian, aurkezpen lanetan Nikolas Aldai aritu zela. *Auspoa* bildumaren 238 eta 239. aleak dira Antonio

Zavalaren *Auspoaren Auspoa* liburua osatzen duten bi liburukiak. 1956tik 1996ra bitartean idatzitako testuak bildu ditu Zavalak bi liburukiotan: hitzaldiak, liburuen aurkezpenak eta hitzaurreak, liburuska moduan argitaratutako idazlanak, etab. Pello Esnaiek idatzitako hitzaurrea du liburuak eta Zavalaren beraren nahiz liburuen aipatzen diren hainbat bertsolari eta kontalariren argazkiak ere baditu, osagarri gisa.



## Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia

Aurten berrogeita hamar urte betetzen ditu Euskal Herriko hamaika etxetako hormetan zintzilik egon ohi den Arantzazuko Egutegiak. Euskararentzat oso zail eta ilunak ziren gerra osteko garaietan sortua, euskaldunen eta Arantzazuren arteko lokarri fin eta ziurra izan da Egutegia. Aita Teofilo Arzallus izan zen Egutegiaren eragileetako bat eta Joxe Antonio Garate koordinatzailea eta zuzentzailea. Gaur egun Jose Luis Zurutuza da Egutegiaren arduradun. Lehen urtean 25.000 ale saldu baziren ere, urte askotan 16.000 inguru aterata izan dira eta azken urteotan 11-12.000 inguruan dabil saltzen diren Egutegi kopurua. Oso atal jakinak izan ditu beti Egutegiak. Alde batean, data, eguzki irteera eta sarrera eta ilargiaren fasea, esaera zaharrak eta eguneko santuen zerrenda. Atzeko aldean, berriz, era askotako gaiak erabili izan dira. Bi gai finko badira: igandeetako gaia —irakurgaien inguruko komentarioa, etab.— bata eta txiste eta pasadizo barregarri osatutakoa, bestea. Haezaz gain, euskal kulturako eta kultura orokorreko atal asko jorratu izan dira Egutegiaren orrietan. Hasieran gipuzkeraz bakarrik ateratzen zen; sortu eta sei-zazpi urtetara bizkaieraz ere aterata zen; gerora, euskara batua onartu zuen Egutegiak eta gaur egun ere euskara batua erabiltzen du. Zorionak hemendik!

## Lehen begiratuan

**M**antxako herri batean, eta haren izenik ez dut gogoratu ere egin nahi...

Cervantesen *Kixote Mantxako* lan ezagunari hasiera ematen dion pasartea horrelaxe itzuli berri da euskarara. Euskal Telebistaren eskutik, gure pantailetara iritsi dira Romagosa produkzio etxeak egindako marrazki bizidunak. Edertrak bikoiztetxea arduratu da 24 atalak euskaratzeaz eta ETBko Hizkuntza Sailak itzulpenaren jarraipena egin du. Ez da zeregin erraza izan: obraren jatorrizko estiloa gordez, marrazki bizidunetako egiturari egokitu zaio.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....